

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Biblioteka laguntzaile
posturako probak /08

IKASTAROA
Euskarazko jolasen
ikastaroa /09

LEINTZ GATZAGA
Binakako pilota
partiduak bihar /10

URREZKO SAGARDOA ORON

OHITURARI JARRAITUZ SAGARDOA
EGITEN HASI DIRA ORO AUZOAN

AKORDEOI ORKESTRA: MEXIKOTIK ITZULI DIRA/5 • KIROLAK: IGOR GUTIERREZ/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 30
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 31
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industriaidea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatutan: 18:30
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

HITZALDIA KURTZEBARRI ESKOLAN
Datorren eguenean, azaroaren 4an, adimen emozionalen gaineko hitzaldia izango da Kurtzebarri eskolako liburutegian. 18:30ean hasiko da, eta Ainhoa Manzano eta Juan Luis Martin arituko dira hizlari. Biak hala biak EHUKo irakasle eta psikologoak dira.

75EKO KINTOAK ERRIOXARA
50 urte bete dituztela eta, 75eko kintoek Errioxa bisitatu, eta hango upeltegi baten bazkaria egingo dute azaroaren 13an. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako euren kontuan.

EUSKAL DANTZAK IKASTEKO AUKERA
Euskal dantzak ikasi nahi dituztenei jakinarazi nahi zaie, Leizarra musika eskolan ikastaro bi direla: eguen ilunkaretan eta egubakoitz arratsaldetan. Edonork parte har dezake, eta ez da derrigorrezkoa euskal dantzak jakitea. Informazio gehiago, musika eskolan.

LORAMENDIRENAGENDA

ITOITZEN INGURUKO HITZALDIA
Datorren eguenean, 20:00etan, hitzaldia egingo du Edurne Elizondok. *Itoitz, porlanezko gezurra* izenburua duen liburua idatzi du Edurnek, eta, hain justu, Itoitzen inguruko hitzaldia egingo du idazleak, udalaxe zaharrear, Durana kalean.

TALOGILEEN AFARIA
San Migeletan taloak egiten ibili zirenek afaria izango dute azaroaren 5ean. Tril taldeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zuten guztiei, eta, horregatik, Apotzagako elkarteak egingo den afarira gonbidatu dituzte guztiak.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Akordeoi orkestrak lehenengo saria Italian

Italian, Castelfidarko herrian egin zen Nazioarteko Akordeoi Jaialdian, lehenengo saria irabazi zuen herriko akordeoi orkestrak, junior mailan. Gaztetxoek orkestrakoek, berriz, Irun Hiria Akordeoi Txapelketan esku hartu, eta horiek ere lehen postua lortu zuten euren kategorian.

LIBURUTEGIKOTXOKOA

BIZIA LO
Jokin Muñoz
Alberdania, 2003
153 orrialde

Liburu honek Euskadi Literatur Saria irabazi berri du, iaz argitaratutako liburuen artean, euskarazko literatura atalean. Bost ipuin bildu ditu egileak. Ipuinotan, 60ko hamarkadan jaiotako haurrek bizitako zenbait gauza aipatzen dira, betiere iritzirik eman gabe, eta gertatzen dena gordin eta jantzi gabe aurkeztuz. Mekano bat nahi zuen haurraren ipuina, semearen berri ez duten gurasoen ezinegona...

Ipuinotan gai nagusia ETA-ren presentzia da, eta haurrek nola bizi zuten giro bortitz hori.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

Restau entzuten da gehiago.
—Ezetx erreztatu neri sakia.

JON IRAEGI

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

**Zorion agurrak,
SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Altzariak

Diseinua

Apainketa

**Mobiliario
ARENZA**

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07

ATREBENTZIAEZPADA/ Bush ala Kerryk gure dozu botaziñue irebazzie?



AGUSTIN HORRILLO
pensionistie

Kerryk irabaztie gure dot. Ikusiko dogu, ez ete dauen Bushen moduen tontuena egitten Bush desastre hutse izen da. Iguel aurrerau bixek be antzerakuek izen- go die, baiñe...



JONE PEREZ
langilie

Behintzet ez dot gure Bush- hek irebazzie. Iraken pasau dana ikusitte... Egixe esat- iarren, politikan inguruen ez dot askorik ententiduten, baiñe Kerryk ze egingo dauen ikusteko dau.



ANGEL IRURE
langilie

Bixek be antzerakuek izen- go die, baiñe aukeran gureu dot Kerryk irebazzie. Iku- siko dogu Kerryk kanpoko politikie aldaketan dauen, baiñe hori be juduen men- pe dau.



ANA MARI SAGASTASOIA
etxeoandrie

Uste dot Kerry hobie izen- go dala. Bestiena ikusitte dau. Ameriketan, hala eta be, dana dirue da, eta horrek mobiduten dau bes- te dana. Hortan, ikusi egin biher.



JAVIER PEREZ
langilie

Berdin dust zeiniek irebaz- ten dauen. Entzun dotenez, nahiko antzera dauz bixek be, eta batak edo bestiek ire- bazi leike. Egixe esatiarren, politikiek ez dust askorik esaten, eta berdin dust.



AMAIA ARRIOLA
langilie

Kerryk irebazzie gure dot, aldaketien aldekie naz eta. Bush- ek zein dauen ikusi- tte, hobeto bestiek ire- bazzie. Gainera, uste dot Kerryk irebaziko dauela botaziñue.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK OSTRUKA GALANTAK Makina bat aretxabaletar gera- tu da harrituta, Arkarazora bidean dauen ostrukak ikusi ondo- ren. Arkarazora igotzen hasi orduko dauen ortuetan, galantak diren hiru ostruka daude. Sarritan izaten dira errepideari begira, eta argaz- kia ere horrela atera genien. Zorte handiagoa izanez gero, hegoak zabalik ikusteko aukera izango duzue./MARIA AGIRRE

ETABARRUAN...

GIZARTEA /04

Sagardoa egiten hasi

Aretxabaletako Oro auzoan sagardoa egiteko ohitura dago. Iregi baserrian dute dolarea.

GIZARTEA /05

Barre egitea oso ona da

Loramendik Barreterapia ikastaroa antolatu du. Ikastaroa emango duenare- kin izan gara.

KIROLA /06

Igor Gutierrez irakaslea

Bailarako pilota- riak entrenatzen ari da Gutierrez. Aretxabaletan izaten dira entrenamenduak.

ASTEKODATUA

500

HARRERA ONA SU TA GAR TALDEAREN KONTZERTUAK

500 lagun inguru izan ziren joan den zapatuan Su Ta Gar eta Ozen taldeen kontzertuan. Kirol etxe- an izan zen emanaldia, eta giro ona izan zen Kurtzebarri Insti- tutuak antolatutako ekintzan.

BESTEKEESANA

“

Estatutua aldatu beharra dago. 25 urtean aurrerapau- sorik ez da egon. Estatutu honekin,

Espainiak Euskal Herriaren indepen- dentzia prozesua trabatzen du. Izan ere, Euskal Herri independente izatera, Espainiak bere botere ekonomikoaren zati handi bat galdu egingo luke.

KEPA BALENZIAGA
“MATRAKA”/04-10-20


“

Udaletxe, postetxe eta osasun zentro izandakoa da Aretxabaletako plazan dagoen eraikin

nagusia. Ikastetxea ere izan zen bere garaian; hain zuzen, datorren ikasturtean beteko dira ehun urte.

LARRAITZ ZEBERIO
‘ASTELEHENEKO GOIENKARIA’/04-10-25

HERRITARRENBERBAK/ Jon Molina



“Heriotza amaren bularrean”

“ Ezin baitiezaiokek herioari arrotz bati bezala begira, ezin diok ez ikusia egin, bizia bezain bizilagun duk eta sortuz geroztik; ezin duk ez balitz bezala joka eta bizi- minez herioa uka” (...)

Hala dio Joxean “Artze”- ren poema hunki- garri batek. Berez, jakin badakigu, jaioz geroztik, biziaren esnetik bezainbat herioa- ren bularretik xurgatzen dugula. Biziak berekin dakar hiltzea, batasun hautsi ezinean, eta ez daukagu heriotza sailhesterik; nahiz eta ahaleginak egiten ditugun... Izan ere, gizarte eta kultura guztiek dute taburen bat, eta litekeena da egungo mendebaldeko gizarte post modernoan tabu hori heriotza izatea. Gure kultura honek heriotzaren galdera mingotsa- ri ihes egiten dio, nerabeek, hamabost urteko neska- mutilek, heldutasunak berekin dakartzan arazoei ihes egiten saiatzen diren

antzera. Baina haien ihesa alferrikakoa da: lehenago edo beranduxeago beraien heldu- tasuna onartu eta bizitzako gorabeherei aurre egin beharko diete. Era berean, gure ihesa ere halakoxea da: alferrikakoa. Ez dago ihes egite- rik; inor ez da hemen “hazitara- ko” gelditzen.

Horregatik, hobe genuke hil beharriari aurrez aurre begira- tu eta heldutasunez jokatu bagenu. Hiltzea bizitzan egiten dugun gauzarik garrantzi- tsuenarikoa da; hil beharra disimulatuz bizia bera uzten dugu baliorik gabe, heriotza ezkutatu bizi- husten dugu. Heriotzak ematen die gure eguneroko ardura eta nekei beren egiazko neurria.

Datorren asteburuan, ehunka pertsona hurbilduko da gure herrietako kanposan- tuetara. Urteroko bisitak balioko ote digu gauza hauetaz guztietaz gogoeta egiteko. Osasun eta heldutasun seinale litzateke.

“Gure kultura honek heriotzaren galdera mingotsari ihes egiten dio, baina alferrikakoa da ihesa”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre

ERREDAKZIOA
Maria Agirre

MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Parke Jurasikue

Lehenengo egunien ikusi neuen Mejikora fandako akordeonista bat, eta aurpegiko kolorie ikusitue, ederto pasau dauela begi bistan dau. Acapulcon bero galanta pasau dauela jakin dot. Egunero 37 gradu! Normala dan moduen, egun dana pistinan sartuta pasetan euien. Gero, ilunkaran, atzamarrak ziketu eta akordeoie-jotera fan bier. Mejikon hain tipikuek dien rantxo batien afarixe eitteko aukerie be izen euih. Mariatxi eta guzti afaldu euien. Ez dakitt, afai bukaeran papelak aldatuko ote zittuzten akordeonista eta maria-txixek.

Nik beti izeten dittut belarrixek zabal-zabalik eta garbi-garbi, holan gauza gehixau jakitten dot. Baina komeni izeten da begixek be zabalik eukittie. Hala ta be, fan dan egunien ikusi neuen txori tzarra ikusteko ez da bista perfektue euki biher. Banoien Arkarazora bidien, Bainuetxe inguruen, eta eskumara dazen ortuetan hego galantak zittuen piezie ikusi neuen. Ostruka esaten ei jake txori horrei. Nik neuk, ideia bat emun gure dotzet rebistako hontako periodistiei. Fan bertara ta atara egixozu erretra-tuek, benetan ikusgarri-xek die ta. Parke Jurasikue herrixen. Hori bakarrik falta zan!

GIZARTEA / Oro auzoan sagardoa egiteko ohitura dute, eta patxarana ere herritar askok egiten du

Sagardoa egiten hasi dira, patxarana egiteko garaia pasa berri den bitartean

MARIA AGIRRE

Edariak etxean egiteko ohitura du hainbat lagunek. Joan den astean, Oro auzoan izan ginen, bertan duten dolarean sagardoa zelan egiten duten ikusten. Beste batzuek, berriz, nahiago dute patxarana egin. Jesus Mari Errastik, esaterako, ederto daki zelan egin.

Oron auzolanean egiten dute sagardoa. Joan den astean, lau lagun elkartu ziren lan horretan: Jose Luis Madinabeitia eta haren seme Luis Mari, Joxe Martin Larraña eta Jesus Osinaga. Iregi baserrian elkartu ziren, duela urte batzuk dolarea bertan baitute. Alboan dagoen Iturralde baserrirako hasi ziren sagardoa egiten. Matxakan, Jose Martin Larraña zebilen, Iturralde baserrikoa bera.

SAGAR UGARI AURTEN

Joxe Martinek esandakoaren arabera, aurten inoiz baino sagar gehiago batu dute. "Aurten izugarri dago, nik aspaldian ez dut hainbeste sagar ikusi, eta hori 41 urte daramadala sagardoa egiten". Beraz, kanpotik ez dute sagarrik ekartzen, nahikoa dute baserri inguruko sagarrondoetan bildutakoarekin.

Matxakara sagarrak botatzen Luis Mari, matxakan Joxe Martin, Jose Luis matxakan txikitakoa dolarera botatzen, eta dolarean Jesus Osinaga aritu ziren. Sagardoa egiten trebezia erakutsi zuten, baina sagardotegia auzoan zabalduko ote luketen galdetzerakoan, zera erantzun zuten: "Hori gazteek egin behar dute".

DOLARE ZAHARRA

Iregi baserrira duela 40 urte eman zuten dolarea. Aurrez, baina, Eskoriatzako marianistek izan zuten, eta horien aurretik Apotza-Etxebarri auzoko Orueta baserrian. Oruetan sagardotegia zuten, eta edaria ere baserrian egiten zuten. Hortaz, egun Oron dagoen dolareak mendea izango duela uste dute.



Joxe Martin Larraña sagarrak txikitzen matxakan, ondoren dolarera botatzeko.



Auzolanean egiten dute Oron sagardoa. Iregi baserrian mendea duten dolarea dute.



Jesus Mari Errastik patxarana egiten du, eta domekan saria jaso zuen.

J.M. ERRASTI PATXARAN EGILEA

Jesus Mari Errastik, berriz, patxarana egiten du duela urte batzuk, eta joan den domekan sekulako sorpresa jaso zuen. Herrian izandako patxaran lehiaketara lehenengo aldiz aurkeztu, eta lehenengo saria eskuratu zuen. "Ez nuen inondik inora lehenengo saria jasotzerik espero. Iruditu zitzaidan patxaran ona nuela, eta besterik gabe aurkeztu egin nintzen. Pentsa, sari banaketan ere ez nintzen izan. Ilunkaran, herriko plazara azaldu eta bata eta bestea hasi zitzaizkidan esaten ea non ibili nintzen, nik irabazi nuela eta. Egia esan, ezusteko handia izan zen niretzat". Lan handia izan zuten epaimahaiko kideek, hiru kanporaketa egin behar izan baitzituzten, eta azkenean aurkeztutako botilagatik eman zioten sari nagusia Jesus Mari Errastiri. Bigarren eta hirugarren sariak ere herrian geratu ziren, gurean patxaran egile onak duden seinale. Esan beharra dago domekako lehiaketara 22 parte-hartzaile aurkeztu zirela.

Irabazleak *Kaxpaxio* izena jarri zion patxaranari. Jesus Mari badu ohitura bitxi bat: herriko mutiko batzuei *Kaxpaxio* deitzen die, eta patxaranari ere izen hori jartzea erabaki zuen. "*Sardan* izena ere pasa zitzaidan burutik, baina azkenean *Kaxpaxio* aukeratu nuen, eta zortea eman dit izenak.

PATXARANA ZELAN EGIN

Adituak aitortu digunez, arantana dago patxaran ona egiteko sekretua. "Aranak mendian bilatu behar dira, ez errepide bazterrean. Irailean batzen dira, eta aurten oso gutxi egon da. Aranak helduta behar du egon, baina ez larregi. Patxarana egiteko aranak, anisa, Keniako kafe ale batzuk eta kanela apur bat behar dira, besterik ez. Irailean egin, eta otsailean edateko moduan egoten da".

Beraz, Errastik lehiaketara aurkeztutako patxarana iaz egingakoa zen. Aurtengoa otsailean izango dute edateko aukera.

LABUR

Laster jarriko dute markesina bat, erdialdeko autobus geltokian zain izango direnentzat

Lehenbailehen autobus geltokian markesina jartzeko asmoa du Udalak, eta jakinarazi digutenez, aste pare bat barru jarri ta egongo da.

Basabeazpiko urbanizazioa zela eta, kendu egin zuten markesina, eta geltoki berrian jarri

aurretik lapurtu egin zuten. Orain, berria erosi eta hori jarriko dute. Azkenaldian makina bat kexu jaso dute Udalean. Eurria egiten zuzenean eta egun haizetsuetan geltokian babeslekurik ez zegoela eta, jendea haserre agertu izan da.

2.204 zenbakidunak jasoko du saria

Aretxabaleko Atzeratuen Aldeko Taldeak txartelak saldu zituen domekan, eta 2.204 zenbakia duenari egokituko zaio otar berezia. Zenbaki horren jabea agertzen ez bada, 1.234 zenbakia duenari emango diote, eta bestela 2.104 zenbakidunari.

Urkulu berritzeko proiektua esleituko du Udalak hamabost egun barru

Atzo, eguna, egitekoa zen gobernu batzordean lehiaketara aurkeztu direnen eskariak aztertu zituzten, eta hamabost egun barru, Urkulurako aurreikusitako lanak egiteko ardura enpresa bati emango dio Aretxabaleko Udalak.

Bestalde, laster Gipuzkoako Diputazioarekin hitzarmena sinatuko da, lanok diruz lagunduko baititu. Aldundiak 550.000 euro emango ditu. Goroetatik aurrera dagoen errepidea asfaltatu, eta autoak uzteko aparkalekuak zehaztuko dira.

KULTURA/ Eskaini dituzten kontzertuak jendetsuak eta arrakastatsuak izan dira

Herriko akordeoilariak pozik itzuli dira Mexikora egindako bidaiatik

M.A

Aretxabaletako Akordeoi Orkestrako lagunak herrian dira, joan den domekan Mexikotik itzuli ondoren. Guztira 26 lagun joan dira bidaiari, gehienak akordeoilariak. Mexiko Hiriko euskal etxeak gonbidatuta izan dira herrialde horretan.

*Mexikon ez zuten
ezagutzen
akordeoilariekin
osatutako
orkestrarik*

*Arrantxo batean,
azteken erara
prestatutako
bildotsa
jan genuen*

Pozez gainezka itzuli dira akordeoi orkestrako lagunak Mexikora egin duten bidaiatik. Domekan itzuli ziren, aste pare bat bertan egin ondoren. Antolatzaileengandik jaso duten traugatik oso pozik etorri dira, eta baita ere eskainitako kontzertuak arrakastatsuak izan direlako. Juanjo Orobengoa orkestrako zuzendariak esan digunez, Mexikon ez zuten ezagutzen akordeoilariekin osatutako orkestrarik, eta halako talde bat ezagutzeak oso inpresio

ona egin die. Hiriburuan, Musikaren Eskola Nazionalean eskainitako kontzertuan, esa-

terako, 300 entzule izan zituzten eta bukaeran autografoak ere eskatu zizkieten.

Musikaren Kontserbatorio Nazionalean ere eskaini zuten kontzertua, eta 200 entzule izan zituzten, gehienak ikasleak. Orobengoa zuzendariak adierazi digunez, ikasleak harrিতa geratu ziren, gehienek uste baitzuten flamenkoa joko zutela. Acapulcon, berriz, hotel batean eman zituzten kontzertuak.

MEXIKOKO OHITURAK EZAGUTU

Baina Mexikoko ohituren berri ere izan dute. Azken egunean, antolatzaileek jai bat antolatu zieten Queretaron. Arrantxo batean, azteken erara prestatutako bildotsa jan zuten. Eta, horrez gainera, mariachiak izan zituzten afaria alaitzen. Orobengoaren esanetan, guztiek pasa dute ederto, baina bereziki taldeko partaide gazteenek.



Inauguratu du Coprecik Txinako lantegia Zhuhai eskualdean

Txinako kutsuaz inauguratu zuen joan den egubakoitzean Coprecik Txinako lantegi berria. Zhuhai hirian dago lantegia, eta inaugurazioan izan ziren, besteak beste, hiriko alkatea, Espainiako enbaxadorea Txinan eta Javier Oleaga Copreciko gerente nagusia. Aretxabaletarrik bada lantegi horretan lanean, Oier Etxebarria, eta orain, Txinan bizi da./M.A

ELKARRIZKETA

LEIRE JAUREGI/BARRETERAPIAKO IRAKASLEA

“Barre eginez askoz hobeto biziko gara”

M.A

Ikastaro bitxia antolatu du Loramendi elkarteak: Barreterapia ikastaroa. Azaroaren 12an eta 19an eskainiko dute, eta izenemate epea zabalik dago. Ikastaroa emango duen irakasle batekin izan gara, helburua zein den jakiteko.

Zertarako Barreterapia ikastaroa?

Gizarte honetan arazo ugari dugu: estresa, urduritasuna, lotsa... Horiei guztiei aurre egiteko ikastaroa da. Barre eginez, gorputz guztia mugitzen dugu, eta orokorrean zoriontsuago bizi gara. Helburua barre egitea denez, barrea motibatzen dugu baina ez txisteak kontatuz.

Zelan lortzen duzue jende-ari barre eragitea?

Kosta egiten da, normalean jendeak tentsioak pilatuta izaten baititu. Jokoen bidez, erlaxazio-arietak eginez eta musikarekin lortzen dugu barre eragitea.

Estresatuta daudenei bakarrik zuzenduta dago?

Ez, jende guztiari. Nahiz eta estresatuta ez egon, kosta egiten zaigu barre zintzoa egitea. Barreak gorputza mugitzen du, baina eragina du emozioen eta pentsamenduen munduan ere. Enforfina; zoriontasunaren hormona, gehitu egiten da barre eginez, eta, gainera, sistema inmunitarioa indartu egiten dugu. Estres egoerek, berriz, kortisola sortzen dute, eta barre eginez kortisola txikitu egiten dugu. Azken baten, gorputza ondo badugu, emozioen aldetik ere hobeto egongo gara.



LEIRE JAUREGI

Ikastaroaren ostean, beraz, bizitza beste era batera ikus daiteke.

Nik ezin dut hori ziurtatu, guk bizitzan erabil daitezkeen erremintak ematen ditugu, aholkuak. Norberaren esku dago horiek erabiltzea. Barrearena, azken baten, aitzakia hutsa da. Garrantzitsuena da barreak jarrera positiboak eragiten dituela norberarengan.

Hainbat tokitan eman dituzue halako ikastaroak.

Bai, dagoeneko hainbat tokitan izan gara. Aretxabaletara lagun bi joango gara ikastaroa ematera.

Eta zergatik ez negar egin?

Negar egitea ere oso garrantzitsua da. Gertatu izan zaigu negarra blokeatuta zuen pertsona bat ikastarora joatea. Negarra ere ez dugu alde batera utzi behar, negargura badugu negar egin behar da. Bestela, hori ere barruan geratzen da.

*“Barre eginez
gorputz guztia
mugitzen dugu, eta
zoriontsuago
bizi gara”*

*“Negarra ez dugu
alde batera utzi
behar, negargura
badugu negar egin
behar da”*

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90



LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

KTIBOS
ZAPATA DENDA



Murubide 2 behea • Aretxabaleta • Tel.: 943 53 37 33

IGOR GUTIERREZ/PILOTAKO ENTRENATZAILEA

"Pilotari gaztetxoek Mikel Goñi imitatu nahi izaten dute"

MARIA AGIRRE

Igor Gutierrez Bergarakoa da, Ubera auzokoa. Orain, Aretxabaletara etortzen da, eskualdeko pilotari gazteak entrenatzen baititu Iturrigorri frontoian. Entrenatzaile izateaz gain, pilotaria ere badugu Igor, eta makina bat txapelketa irabazi ditu.

Zer dela eta etortzen zara Aretxabaletara?

Gipuzkoako Euskal Pilota Elkartean lanean ari naiz, eta elkarteak teknifikazio proiektu bat du esku artean. Hau da, pilotariei entrenamendu osagarriak eskaintzen ari gara. Euren klubekin entrenatzen dira astero, baina bi astean behin ni neu etortzen naiz beste era bateko entrenamenduak zuzentzera. Nire entrenamenduak osagarriak dira.

Aretxabaletan, eskualdeko pilotari infantilak entrenatzen dituzu.

Bai. Arrasateko, Bergarako eta Eskoriatzako gazteak etortzen dira hona. Bi maila ditugu infantiletan, guztira zortzi bat mutiko entrenatzen ditugu. Kontua da aukeraketa egin genuela, pilotan ondoen moldatzen direnei zuzenduta baitago proiektua. Gazte horiek motibatu nahi ditugu pilotan jarrai dezaten. Gertatzen zen ondo aritzen zirenak ez hain onak zirenekin entrenatzea, eta onenen motibazioa jaiste. Hori eragotzi nahi dugu.

Beraz, urte batzuk barru izarren bat izan dezakegu.

Hori ez dakit, goiz da halakorik esateko. Gainera, ez dizut pilotan ondoen aritzen direnen izenik ere emango.

Neskarik ez dago taldean.

Ez dago, ez. Urretxun bada bat, Nerea Gabilondo, eta ederto ari-



MARIA AGIRRE

tzen da, oso ona da, baina hemen ez da neskarik animatu.

Gaztetxoek zein pilotari dute eredu?

Esaten dituzten biraengatik eta egiten dituzten keinuengatik, Mikel Goñi. Eskuarekin pareta jotzearena, esaterako, Goñirengandik ikasi dute, eta hura imitatu nahi dute. Orokorrean, onena zein, hura dute eredu.

Futbolak zelan eragiten du?

Futbolak pisu handia du gaztetxoengan, eta norbait futbolearen ere ona bada, nahiago du pilotan baino futbolearen aritu.

Baina gaur egun telebistaz sarritan eskaintzen dituzte pilota partiduak, eta horrek lagunduko du, ezta?

Bai, jakina, telebistan agertzeak asko eragiten du.

Gainontzean, zelan ikusten duzu pilota mundua?

Oso ustelduta. Federatuen mailan, esaterako, interes mordoa dago, eta interes gutxi pilotaren alde lan egiteko. Mafiak eratu dira, eta gainera, mafia horiek oso elitistak dira. Pilota-

ri onak aurrera, baina besteak atzean geratzen dira. Eta profesionalen ere antzera, pilota negozio hutsa bihurtu da.

Profesionalek diru asko irabazten ei dute.

Hori lehen gertatzen zen; orain, batzuek bakarrik irabazten dute diru asko. Lehen guztia diru beltzean ordaintzen zen; orain, berriz, Gizarte Segurantzian kotizatu behar dute pilotariak. Jendeak uste duen baino gutxiago irabazten da.

Zein pilotari duzu gustuko?

Orain, Xala, baina betidanik Zezeagaren jarraitzailea izan naiz; badakizu, biok ere Uberakoak gara eta...

Zure lorpenik handienak pilotan?

Nik atzelari jokatzeko dut, Muguruzarekin batera, eta Gipuzkoako Txapelketa askotan irabazi dugu. Debarroko txapelkunak ere izan gara, baina iaiz, Errasti anaiek irabazi ziguten. Gehienetan txapelketa ofizialetan jokatzeko dugu.

"Pilotari gaztetxoak motibatu nahi ditugu gero ere pilotan jarrai dezaten"

"Pilota mundua oso ustelduta dago. Mafiak eratu dira, eta gainera, oso elitistak dira"

"Betidanik Zezeagaren jarraitzailea izan naiz, biok ere Uberakoak gara eta"

ERRENTERIAN JOKATUKO DA PARTIDUA, ZAPATUAN, 17:00ETAN

Bolada bikainean dabilela jokatu du norgehiagoka UDAk Touring taldearen aurka

Neka Galan, preferente mailako entrenatzaileak uste du, Touring taldearen aurka jokatu beharreko partidua oso zaila izango dela. "Fisikoki oso indartsuak diren jokalariek ditu Touring-ek, baina esan beharra dago gu oso bolada onean gaudela. Taldea jokatzeko eta golak sartzen ari da" adierazi du entrenatzaileak. Joan den asteburuan 3-1 irabazi zuen UDAk Zarautz taldearen aurka.

FOTOKIROLA



Minutuko isilunea Mariano Oteroren alde

Joan den domekan preferenteko UDAk eta Zarautzek jokatu partiduaren hasieran, minutu bateko isilunea egin zen, duela gutxi hil den Mariano Oteroren alde. UDAko lehenengo zuzendaritza batzordeko kide izan zen, eta ondoren mendi saileko kide 20 urtez. Murun gurutzeko jartzeko lanak Marianok zuzendu zituen. Futbolearen ere jokatu zuen, eta, hain justu, Marianok egin zuen UDAk lortutako lehenengo garaipenaren gola. Ondarroaren aurka jokatu zuten partidu hura. /M.A

JOKATZEKOAK

ESKU PILOTA

2004-10-30
09:30 Agirre Larrañaga - Mujika Carrillo
10:00 Korta Iturbe - Sarasua anaiek
10:30 Juantxu Uriarte - Ormaetxea Etxebarria
11:00 Iriondo Iturbe - Elgezabal Leiba
11:30 Gonzalez de Durana Galdos - Heriz Agerre
12:00 Isasti Isasti - Gracia Otxoa

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea
UDA 3 ZARAUTZ 1
Ohorezko jubenilak
ANAITASUNA 3
UDA-ARIZMENDI 1
Lehenengo mailako jubenilak
UDA-ARIZMENDI 2
HAMAIIKA BAT 1
Lehenengo mailako kadeteak
HAMAIIKA BAT 2
UDA - ARIZMENDI 1
Bigarren mailako kadeteak
SORALUZE 0 UDA-ARIZ. 7

Ohorezko infantilak
UDA-ARIZ. 1 AÑORGA 2
Infantil txikiak
UDA-ARIZMENDI 2 UROLA 4
Emakumezkoak F-11
UDA-ARIZMENDI 4
ILINTXA 0
Emakumezkoak F-8
UDA-ARIZMENDI 3 URKI 3

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Aretz

taberna

"Oilasko erreak eta paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTROA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia
(taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentroa
Santa Kurtz 24
20550 ARETXABALETA
Tel.: 616 965 795

bakarra zarelako...



Zainduz Fitness banakako programak

- ▶ Rekonozimenduak Zainduzen. Jarraipen antropometriko-fisiologikoak hilero bertan.
- ▶ Norberari egokitutako ariketa programa
- ▶ Monitore tituloduna zurekin uneoro
- ▶ Technogym markako makina berriak
- ▶ Dietista kontsulta barne.
- ▶ Esfortzu froga (aukerakoa)

Eskeintza berezia:

Matrikula (% 50)

+


Azaroa

+

Abendua

108€

**(Dietistarekin
kontsulta barne)**



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 29a / 184. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Martitzenean egin zituzten liburutegi laguntzaile posturako lehenengo probak


ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bibliotekari laguntzaile posturako proba egin zuten martitzenean pilotalekuan. Bi azterketa egin behar izan zituzten aurkeztutako lagunek. Oraindik, baina, lau proba geratzen dira egiteko. Bestalde, Udalak aste honetan kaleratu du udaltzain posturako onartutakoen zerrenda.

Eskoriatzako Bibliotekan laguntzaile lanetan arituko den pertsona bilatzen dabil Udala. Aurten go ekainaren 24an egin zen publiko lanpostua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Martitzenean, urriak 26, hautaprobak egin zituzten pilotalekuan. Goizeko 09:30ean joan ziren 16 pertsona bertara azterketa egiteko. Aulki asko zeuden hutsik. Isil-isilik, nor bere azterketan murgilduta, galderak ahalik eta ondoen erantzuten saiatu ziren bertaratutakoak.

Bi proba egin zituzten pilotalekuan izan zirenek. Hasteko, administrazioarekin lotutako galdera multzo bat erantzun behar izan zuten. Azterketara aurkeztu ziren 16 lagunetatik hamarrek gainditu zuten lehen proba. "Nik



Pilotalekua izan zen probak egiteko aukeratutako tokia; aulki mordoak geratu ziren hutsik.

ez dut azterketa behar bezala presatatu", adierazi digu probara aurkeztutako lagun batek. "Banekien aukera gutxi nituela gainditzeko, eta hala izan da", gaineratu du.

Ondoren, bigarren azterketa egin zuten aurrenekoa gainditu

zuten hamar pertsonak. Liburutegiei buruzko bi gai eman zituzten, eta horien inguruko azalpena eman behar izan zuten.

Lan deialdia argitaratu zenean, 90 pertsonak eman zuten izena liburutegi laguntzaile postu-

rako; horietatik 85 onartu zituzten. Gainerako bostak, askotariko arrazoiengatik, baztertu egin zituzten: ziurtagiria eraman ez zutelako; eskaerak ez zituztelako eredu normalizatuz egin; nortasun agiria eraman ez zutelako; lan-

postuari dagokion titulurik aurkeztu ez zutelako. Martitzenean, baina, 16 lagun bakarrik agertu ziren. "Askotariko arrazoiak egon dira azterketara ez agertzeko. Adibidez, horrenbeste jende onartuta zegoela ikusita atzera egin dute batzuek", eman digu aditzera epaimahaiko kide batek.

Oraindik, baina, ez dute proba guztiekin amaitu. Lau geratzen dira egiteko. Eguna zehaztu ez duten arren, lehenbailehen egitea gura dute epaimahaikideek. "Izan ere, postua betetzeko pertsona ahalik eta azkarren laflean hastea gurako genuke". Egiteke dauden probak praktikoak dira. "Euskara, katalogazioa eta informatika lantzen dituen proba, eta azkenik, azterketa psikoteknikoa gainditu beharko dute hurrengo probara igarotzen direnek.

UDALTZAIN POSTUA

Bestalde, udaltzain lanposturako aurkeztu eta onartutakoen zerrenda plazaratu du Udalak. 25 pertsona onartu dituzte; sei baztertu. Adinaren baldintza —31 gehieenez— ez betetzeagatik utzi dituzte kanpoan, esaterako. Azaroaren 12an Arkauten proba fisikoa igarotzeko beharko dute onartutakoek.



Udal ordezkariak Kurtzebarriko inaugurazioan

Eskoriatza, Gatzaga eta Aretxabaletako ikasleek DBH eskola publikoan egiteko aukera ematen du Kurtzebarri eskolara. Iragan zapatuan, hilak 23, eraikin berria inauguratu zuten Aretxabaletan. Bertan egon ziren, besteak beste, Eskoriatza eta Gatzagako alkateak. Jai giroan ospatu zuten irekiera, eta bide batez, hiru herriek komunean duten proiektua egia bihurtu dela gogoratu zuten. Eskerrak eman zituzten inaugurazioa posible egin duten guztiei. /Z.V.M.

LABUR

Atzeratu egin dute Santa Anari buruzko erakusketa

Eskoriatzako Udalak Santa Ana urbanizazio proiektuari buruz urriaren 6an ireki behar zuen erakusketa atzeratu egin du oraingoz. Oraingoz ez dute zehaztu noiz zabalduko duten.

Aurrekontuen zati handi bat Santa Ana berritzeko erabiltzea adostu zuten martxoan udal ordezkariak. 5.216.000 euroko aurrekontutik 400.000 euro bideratu zituzten lan horretarako. Herritarrei horren berri zehatzagoa ematea da erakusketaren helburua.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

KOMIKO GAUA

Gaur, egubakoitza, helduentzako komiko gaua egongo da Unibertsitatean. Kike Bigurik bakarriketak eskainiko ditu 22:00etan hasita.

DOMU SANTU EGUNA

Astelehenean, azaroak 1, Domu Santu eguna dela eta, hilerria zabalik egongo da domekan hasi eta astelehenera arte. Bestalde, 12:00etan astelehenean meza esango dute eta 17:00etan Bezperak errezatuko dituzte parrokiari. Martitzenean, Errosarioa egingo dute otoitz kanposatuan 17:00etan.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO ESKOLA

Gaur elkartu dira lehenengo bertso eskolan izena eman dutenak. Egubakoitzero izango dute hitzordua Nerea Urria irakaslearekin. Arrasaten elkartuko dira, 17:00etan AED elkartearen egoitzan.

LAUGARREN URTEZ ANTOLATU DUTE IKASTAROA

Euskaraz jolasten eta abesten ikasteko eskolak emango dituzte azaroan

Z.V.M.

Duela lau urte hasi ziren euskarazko jolasak irakasten. Interesa duen orok eman dezake izena bertan. Guraso askok euren jolas-aukera gaztelarera mugatuta zutela kontuan hartuta hasi ziren eskolak ematen. Aurten, guraso eta haurrei zuzendutako ikastaroa prestatu dute.

Laugarren urtez, euskarazko jolasen ikastaroa antolatu dute Eskoriatzan. Gurasoek euren seme-alabekin euskal hizkuntzan jolasteko baliabideak eskainiko dituzte. "Familia giroan hizkuntzak duen garrantziak jabeturik eta guraso askok euren jolas-aukera gaztelarrera hutsezkoa dutela konturatuta antolatu ditugu ikastaroak", adierazi du Mari Carmen Arrieta Euskara teknikariak.


Izenematea kultura etxean egin beharko da; azken eguna azaroaren 5a izango da. Eskolak azaroaren 13an, 20an eta 27an izango dira, 10:30etik 12:30era, pilotalekuan. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere pare bat talde osatuko dira.

Esaterako, mimika, sokasalto, goma eta animazio jolasak irakatsiko dituzte ikastaroetan

tzea espero dute antolatzaileek. Eskoriatzarrek 10 euro ordaindu beharko dute; 13 euro gainerakoek.

BI IKASTARO

Orain arte bezala, 0-5 urte bitarteko haurren jolas eta kantuak erakutsiko dituzte. Guraso, aisialdiko hezitzaile, irakasle, aitona-amona eta orokorrean interesa duten guztiek har dezakete parte ikastaro horretan. Bertan, euskarazko esku-jolasak, taldeko jolasak, mimika eta trebetasun jolasak erakutsiko dituzte, besteak beste. Baina kantak ere izango dira protagonista ikastaro horretan. Hala, sehaska kantak, altzoan hartuta abestekoak... irakatsiko dituzte.



Arrakasta izan du aurreko urteetan ere euskarazko jolasen ikastaroak.

Orain arte helduei zuzendutako eskolak bakarrik eman izan dituzte. "Aurten guraso eta haurrei zuzenduta bigarren ikastaroa antolatu dugu", eman du aditzera Arrieta.

Hala, besteak beste, sokasalto, goma, animazio eta mimika jolasak ikasteko beta edukiko dute azaroko hiru zapatu horietan ikastaroko parte-hartzaileek.

Hilerrri eta kiroldegian egingo dituzte lanak

Z.V.M.

Datorren astean hasiko dira hilerririko hainbat horma konpontzen. Izan ere, txarto daudela ikusi dute, eta erori baino lehen eraberritu egin gura dituzte. Kiroldegi inguruan hainbat lan egiteko proiektua adostu du Udalak; hainbat oztopo arkitektoniko kenduko dituzte.

Eskoriatzako kanposantuko alde zaharreko hormak gaizki daude; lurrera jausteko arriskua dago. Hori ikusita, Udalak konpontzea erabaki du. Hala, datorren astean hasiko dituzte lanak. Frixi

Eraikuntza Enpresari esleitu dio Udalak eraberritze ardura. Domu Santu eguna igaro ondoren hasiko dira konpontzen. Ondorioz, azaroaren 2an Leteko errepidea itxi egingo dute hogeit egunez.

KIROLDEGI INGURUKO LANAK

Bestalde, Intxaurtxuetako kiroldegiko hainbat oztopo arkitektoniko kentzeko proiektua aurrera doa. Aurreko legea betetzen duen arren, ordenantza berrira egokitu behar dute tokia.

60.000 euro inbertituko dituzte kiroldegia egokitzen, eta, besteak beste, aldageletan hainbat lan egingo dituzte.



Kiroldegi barruan hainbat oztopo arkitektoniko kenduko dituzte.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Ze barri?

IKASTETXE BAKOITZERA AUTOBUS BANA JOATEN DA

Hiru autobus desberdin erabiltzen dituzte herriko gazteek eskolara joateko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Herriko 25 gaztek egunero autobusa hartzen dute eskolara joateko. Hala ere, denak ez dira toki berera joaten. Hiru ikastetxetan daude banatuta lagun horiek. 2000. urteaz geroztik Gatzagan haur eskola dago berriz ere abian; zazpi ikasle dabilta gaur egun.

Gatzagako txikienek bakarrik dute herrian eskolara joateko aukera. Izan ere, sei urte baino gehiago duten gazteek Eskoriatza edo Aretxabaletara joan behar dute ikastera. Eguneroko joan-etorria egiteko, autobusa har dezakete duela zenbait urtetik. Horrek guraso askori lagundu egiten die; izan ere, euren lana dela-eta askok ez dute denborarik seme-alabak eskolara eramateko.

Orain dela gutxira arte, gatzagarrek Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxera joateko aukera bakarrik zuten. Orain, berriz, hirurik ikastetxetan ari dira ikasten herriko gazteak.

Eskoriatzara jaisteko goizeko 08:30ean elkartzen dira eta Luis Ezeizara jaisten den autobusa hartzen dute. Zazpi pertsonak erabiltzen dute zerbitzu hori. Eskolan bazkaltzen dute, eta arratsaldean itzultzen dira berriz ere herrira zazpiak.

Esan bezala, Luis Ezeiza ikastetxeaz gain, gatzagarrek beste bi aukera dituzte. Horiatariko bat Arizmendi Ikastolaren Almenegunea da. Autobusez jaisten dira bost lagun Almenera euren ikasketak egitera. Haiek 08:05ean hartzen dute ikastetxeraino eramango dituen ibilgailua.

Hirugarren aukera Aretxabaletako Kurtzebarri eskola da.



Goizean hartzen dute autobusa gatzagarrek eta arratsaldean itzultzen dira herrira.

MARIA AGIRRE

Gatzagako 13 gazte lehen hezkuntza eta batxilergoa ikastera joaten dira bertara. Autobusa 08:20an irteten da Gatzagatik. Hiru taldeak 17:00etarako Gatzagara itzultzen dira.

HAUR ESKOLA GATZAGAN

Duela urte batzuk haur eskola zerbitzua eskaintzen zen Gatzagan bertan. Hainbat arazo zirela medio eten egin zuten zerbitzu hori. "Azkenean 2000. urtean jarri

zen berriz martxan", eman du aditzera Ana Esnal Guraso Elkarte-kideak.

"Hamaika ume hasi ziren arren, gaur egun zazpi bakarrik dabilta", gaineratu du. Luis Ezei-

zaren barruko gela da Gatzagako. Herriko txikiak joaten dira; bi urteko hirurik, hiru urteko bat, lau urteko bi eta bost urteko bat dabilta San Migel plazako egoitzan.

Binakako pilota partiduak jokatuko dira asteburuan

Z.V.M.

Zortzi bat bikote arituko dira asteburuan Gatzagan pilotari ematen. Bihar, zapatua, kanporaketak jokatuko dituzte, eta domekan izango da finala. Parte-hartzaile guztiak jasoko dute oroigarriren bat. Bestalde, bihar afaria egingo dute txapelketan parte hartzen duten bikoteek.

Binakako pilota partiduak egongo dira ikusgai asteburuan Gatzagan. Oraindik ez dute bikote kopuruaren zifra zehatzik, "azken orduan norbait animatuko da-eta", eman digu aditzera Jose Ina-

xio Beloki antolatzaileak. Zortzi bat bikote izango direla uste du. Nahiz eta parte-hartzaile gehienak gatzagarrik izan, Eskoriatzakoren bat edo beste ere arituko da jokatzen.

Kanporaketak jokatuko dituzte bihar, 17:00etan hasita. Gazteak hasiko dira eta ondoren nagusiek jokatuko dute. Gauean, parte-hartzaileek afaria egingo dute. "Orain arte elkartean egin dugu afaria, baina aurten tabernaren batera joango gara", eman du aditzera Belokik.

Domekan, 17:00etan hasita, finala jokatuko dute. Guztiak jasoko dute opariren bat.



Gazte zein helduek jokatuko dituzte partiduak zapatu eta domekan.

ARTXIBO

Kurtzebarri BHI osatzen dugunon partetik,
eskerrik asko aurrera egiten
lagundu diguzuen guztioi!




KURTZEBARRI
BHI

KURTZEBARRI BHI

Herriko plaza 1 • Aretxabaleta • Tel.:/ Faxe: 943 79 57 40
012945aa@hezkuntza.net

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Urte bukaera arteko harpidetza.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.